

# BIZKAIKO PLAN OPERATIBO SOZIOSANITARIOA 2023-2026



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA  
DEPARTAMENTO DE SALUD



Osakidetza



Bizkaia



EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA  
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS



ARGITARATZAILEA: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

EGILEAK: BIZKAIKO LURRALDE KONTSEILU SOZIOSANITARIOA

INPRIMAKETA: FORU MOLDIZTEGIA

DISEINUA: LGRTM. LOGORITMO

LEGE GORDAILUA: BI 00581-2024



<b>0. GLOSARIOA</b>	<b>4</b>
<b>1. HITZAURREA</b>	<b>5</b>
<b>2. ARRETA ETA KOORDINAZIO SOZIOSANITARIOA</b>	<b>6</b>
2.1 2021-2024 aldirako Euskadiko Estrategia Soziosanitaria eta haren jarduketa-eremuak	6
2.2. Gobernanza soziosanitaria	7
2.2.1.Erabaki-organoak eta koordinazioko figurak	8
2.2.2.Irispidea	9
<b>3. BIZKAIKO PLAN OPERATIBO SOZIOSANITARIOA (POSS) 2023-2026</b>	<b>11</b>
3.1. Akordio instituzionala	11
3.2. Lortu nahi diren helburuak	11
3.2.1 Helburu orokorra	11
3.2.2 Helburu espezifikoak	11
<b>4. BIZKAIKO POSS 2023-2026REN PROIEKTUAK</b>	<b>13</b>
4.1. Ikuspegi orokorra: proiektuen zerrenda	13
4.2. Egungo POSS jasotzen duten proiektuen edukiaren xehetasuna:	13
Gobernanza soziosanitaria	14
Eragingarritasun soziosanitaria	16
Prebentzio soziosanitaria	20
Arreta soziosanitaria	24
I+G+B soziosanitaria	31
<b>5. KRONOGRAMA</b>	<b>33</b>
<b>6. POSS 2023-2026REN EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA</b>	<b>34</b>





## 0. GLOSARIOA

SIGLAK	AZALPENAK
<b>AG</b>	Arreta Goiztiarra
<b>BFA</b>	Bizkaiko Foru Aldundia
<b>Bizkaia</b>	Bizkaiko Lurralde Historikoa
<b>EEZ</b>	Eskualdeko Erreferentziazko Zentroak
<b>EAE</b>	Euskal Autonomia Erkidegoa
<b>ASEK</b>	Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseilua
<b>EASE</b>	Euskadiko Arreta Soziosanitarioko Estrategia
<b>EJ</b>	Eusko Jaurlaritza
<b>AGBT</b>	Arreta Goiztiarra Baloratzeko Taldea
<b>ESI</b>	Osasun Erakunde Integratua(k)
<b>EZPA</b>	Erabakien eta Zaintzen Plangintza Aurreratua
<b>APP</b>	Arreta Pertsonalizaturako Plana
<b>POSS</b>	Plan Operatibo Soziosanitarioa
<b>BOMS</b>	Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarea
<b>OGZ</b>	Oinarrizko gizarte zerbitzuak
<b>GZES</b>	Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema
<b>LGU</b>	Lehen-mailako Arretarako Unitatea
<b>KIU</b>	Kudeaketa Integratuko Unitatea
<b>EUS</b>	Egoitza-unitate Soziosanitarioa





## 1. HITZAURREA

Aurkezten den dokumentuak Bizkaiko Lurralde Historikorako Plan Operatibo Soziosanitarioa (POSS) jasotzen du 2023 - 2026 aldirako. Tresna praktikoa eta ulergarria izan nahi du, eta, 19 proiektu operatiboren bidez, Euskadiko Arreta Soziosanitarioko Estrategian (EASSE) 2021-2024 adostutako zeharkako arloak eta ildoak zehazten ditu. Estrategia hori Bizkaiko Lurralde Kontseilu Soziosanitarioak onartu zuen, eta Bizkaiko Lurralde Batzorde Soziosanitarioak sustatu, Euskadiko gobernantza soziosanitarioari buruzko abenduaren 7ko 150/2022 Dekretuaren esparruan.

2023-2026 aldirako Bizkaiko Plan Operatibo Soziosanitarioa, era berean, Bizkaiko Foru Aldundiaren (BFA) Iraupen Luzeko Zainketen Trantsizio Planean oinarritzen da. Plan horretan, gaur egun, lau proiektu eragile daude: etxean irauteari laguntzeko etxeTIC eredia ezartzea, egoitzetako arreta bizikidetzaren bidez pertsonalizatzea, erreferentziazko eskualde-zentroak (EEZ) sortzea, zerbitzu soziosanitarioekin eta egoitza-sareari laguntzeko talde profesionala, eta zaintzak eskaintzen dituzten profesionalen prestakuntza indartzeko ekintzak.

Egungo testuinguru soziodemografikoan, eta pandemiak dakartzan erronken ondoren -koordinazio soziosanitarioa areagotu zuen krisiari eraginkortasunez heltzeko-, testuinguru zail horretan lortutako ikaskuntzak eta lorpenak txertatu dira, etorkizuneko gertakizunei erantzun soziosanitario integrala emateko, behar soziosanitarioak dituzten pertsonen behar duten arreta eskainita betiere, une eta leku egokian. Hala, ahal den neurrian, pertsonen beren ohiko gizarte-ingurunean jarraitzea sustatuko da, haien eta beren zainketan parte hartzen dutenen bizi-kalitatea hobetzeko behar adinako arreta eskainita etxean. Era berean, arreta hobetzera bideratutako proiektuak ezarriko dira, hurbileko zentroetatik eta komunitatean txertatutako egoitza-zentroetatik, hain zuzen ere pertsonen bizi-ibilbideak eta nahiak errespetatzen dituztenak.

2023-2026 aldirako Bizkaiko Plan Operatibo Soziosanitarioaren bidez, proiektuetan parte hartzen duten eragile guztien etengabeko konpromisoa lortu nahi da, helburu hauekin: pertsona guztientzako kalitatezko arreta soziosanitarioa bermatzea, haien bizi-kalitatea hobetzea, zerbitzuen efizientzia eta eraginkortasuna handitzea, kostuak murriztea, mendetasunaren prebentzioa eta autonomia pertsonalaren sustapena.

Bizkaiko Plan Operatibo Soziosanitario horrek jarraipena ematen die 2018-2020 aldiran hasitako proiektu batzuei, eta, aldi berean, erronka berriak dakartza hurrengo hiru urteko, azaleratzen ari diren eta pandemiaren osteko egungo testuinguruan garrantzi berriak dituzten eremuetara bideratuta.





## 2. ARRETA ETA KOORDINAZIO SOZIOSANITARIOA

Honelaxe definitzen da arreta soziosanitarioa: "osasun arazo larriengatik edo muga funtzionalengatik eta gizarte-bazterkeriako arriskuagatik aldi berean osasun eta gizarte mailako arreta behar duten pertsonen zaintza-multzoa, koordinatua eta egonkorra, arretaren jarraitutasun-printzipioari egokitu", eta pertsonen arreta integrala bermatzea bilatzen du, osasun eta gizarte mailako sistemen arteko lankidetzatik, bi sistemen arteko koordinazio eraginkorra eskaintzeko, arreta pertsonalizatuagoa oinarri hartuta esku-hartze integral batera bideratuta.

2021-2024 aldirako Euskadiko Arreta Soziosanitarioko Estrategiaren xedea da "pertsonek bizi-zikloaren etapa guztietan zainduko dituen arreta soziosanitarioa lortzea, ikuspegi sistematiko eta jasangarri batetik eta haien bizi-proiektua errespetatuz". Eta gako horretan, zeharka txertatzen ditu egin beharreko jardura guztietan sortzen ari diren indar-kontzeptuak, jarduketak ekitatez, generoz, komunikazioz eta informazioz moldatuko dituzten diskurtso sozial hegemonikoak ikusarazi nahi dituztenak.

### 2.1. 2021-2024 aldirako Euskadiko Estrategia Soziosanitarioa eta haren jarduerak

Indarrean dagoen estrategia soziosanitarioaren bost arloetan oinarritzen da Bizkaiko POSS 2023-2026, pertsonen bizi-kalitatea hobetzera eta "pertsonei arreta integrala ematera, haien adina, osasun egoera edo ahalmen ekonomikoa edozein dela ere, osasun eta gizarte mailako sistemak koordinatuta".

#### • **Gobernantza soziosanitarioa**

Gobernantza soziosanitarioa funtsezkoa da Euskadiko **politika soziosanitarioak bideratzeko, definitzeko eta hedatzeko**. Euskadin hedatutako koordinazio-ereduaren egituraketa eta osasun sistemen eta gizarte Zerbitzutako sistemen arteko harreman funtzionala jorratzen duten **hiru proiektuen** inguruan dago egituratuta:

1. Bi sistemen arreta soziosanitariorako egituren, baliabideen eta tresnen arteko harremanak definitzen dituen ereduaren artikulazio juridikoa.
2. Arreta soziosanitarioko zuzendaritza eratzea.
3. Arreta soziosanitarioan erantzukizunak dituzten erakunde guztiek partekatutako finantzaketa-esparru komuna definitzea.

#### • **Elkarreragingarritasun soziosanitarioa**

Elkarreragingarritasuna, hau da, informazio sistemek eta prozedurek **datuak partekatzeko eta haien artean informazioa eta ezagutza trukatzeko duten gaitasuna**, ezinbestekoa da administrazio publikoek elkarrekin lankidetzan aritzeko, garatzeko, integratzeko eta zerbitzuak emateko. **Prozesu integrala** dela ulertzen da, eta gizarte eta osasun zerbitzuek zerbitzu koordinatuen garapenarekin duten konpromisoa bateratzen du.

#### • **Prebentzio soziosanitarioa**

Prebentzio soziosanitarioaren **egokitasuna zainketen horniduran nagusi den konfigurazioan aldaketak** izateko beharrean oinarritzen da, baita biztanleriaren behar **soziosanitarioei aurrea hartzeko** beharrean ere, edo prebentzio, arreta eta errehabilitazio soziosanitarioko eredu iraunkor berrietarantz igarotzea errazteko premian.





Prebentzio esparru bat definitzeko, jarduera koordinatuen ardatz bikoitza hedatu behar da. Jarduerok sektore artekoak izango dira, eta herritarrek eta hirugarren sektoreak parte hartuko dute edozein pertsonak behar soziosanitarioak, aldi baterakoak edo kronikoak sortzea eragin dezaketen bizi-inguruabarrak sor ditzaketen faktoreen kudeaketan.

#### • **Arreta soziosanitarioa**

Euskadiko arreta soziosanitarioaren jatorria **zaintzak emateko estrategiak zehaztean datza**, zenbait biztanle-taldek dituzten behar sozialei eta sanitarioei erantzun koordinatua eta eraginkorra eman ahal izateko. Batzuetan, aldi berean, mendekotasuna, desgaitasuna, gizarte-bazterketa, garapen-premia bereziak, kalteberatasun- eta babesgabetasun-egoerak eta diziplinarteko esku-hartzea eskatzen duten egoerak dira.

Aldez aurreko hedapen estrategikoen esperientziatik abiatuta, arretak lortu behar duen ikuspegi holistikoa nabarmentzen da, erakundeen artean konfiantzazko harremanak sortzen dituzten talde malgu eta hurbilekoen bidez.

#### • **I+G+b soziosanitarioa**

Gizarte eta osasun sistemen arteko **koordinazioa etengabe hobetzeko**, asistentziarako aukera eraginkorrak zehazteko edo sortzen ari diren **behar eta erronka berriei irtenbideak** emateko beharra agerian geratzen da erakundeek ezagutzarekin duten konpromisoan, ekosistema soziosanitarioa berritzeko eta eraldatzeko elementua den aldetik.

## 2.2. Gobernantza soziosanitarioa

Euskadiko Gobernantza Soziosanitarioari buruzko abenduaren 7ko 150/2022 Dekretuak Euskadiko gobernantza soziosanitarioaren lurralde definizioa eta artikulazioa eskaintzen du, gizarte eta osasun politiken eremuen, lurralde mailen, plangintzaren eta antolamenduaren, antolaketaren eta laguntzaren lurralde mailen eta dagozkien zerbitzu eta profesionalen arteko harreman estrukturalak eta funtzionalak konfiguratzeko eta formalizatzeko beharrari erantzuteko.

Arreta soziosanitarioaren erakundearteko harmonizazioaren eta koordinazio funtzional eta askotariko diziplinen eredu baten esparruan garatzen da, eta, gainera, **governantzako sei printzipio sozial** hauetan oinarritzen da:

1. Erakunde eskudunen eta harmonizazioaren arduradunen **kudeaketa-autonomia eta lidergoa errespetatzea**.
2. **Erantzukidetasuna**, erantzun ekitatiboa eta homogeneoa Euskadiko hiru lurralde historikoetako herritarren behar soziosanitarioei.
3. **Zeharkakotasuna**, erakunde eskudunen eta arduradunen artean.
4. **Adostasunaren** printzipioaren arabera jardutea, eta esku-hartzeak erabakiak hartzeko konbergentzia prozesu baten emaitza izatea.
5. Jarduketak **harmonizatzea**, beharrei eraginkortasunez eta efizientziaz erantzuteko.
6. Behar soziosanitarioak dituzten pertsonen zainketen jarraitutasuna eta arreta koordinatua **sustatzea** esku hartzeko lehentasunezko ardatza den aldetik.

**Gobernantza egiturari** dagokionez, hauexek osatzen dute egitura:

1. **Organo erabakitzaileak**, aholkularitza eta partaidetzako funtzioak betetzen dituztenak.
2. **Koordinazio** soziosanitarioko **figurak**.






### 2.2.1 Erabaki-organoak eta koordinazioko figurak

**Erabakiak hartzeko eta parte hartzeko organoak** erakunde arteko eta askotariko arloetako organoak dira, eta erabakiak hartzeko proposamenak, aholkuak, jarraipena eta kontrola egiteko eratzen dira, autonomia-erkidegoko, foru lurraldeko, eskualdeko edo udalez gaindiko lurralde eremu batean, eta kudeaketa-maila jakin baten arabera:

- a. **Plangintzaren eta antolamenduaren** kudeaketa-maila, **makrokudeaketa**-maila ere esaten zaiona.
- b. **Antolaketaren kudeaketa** maila, **meso kudeaketa** maila ere esaten zaiona.
- c. **Asistentziaren kudeaketa** maila, **mikro kudeaketa** maila ere esaten zaiona.



Iturria: Euskadiko Gobernantza Soziosanitarioaren Eredua.EASSE 2021-2024an oinarritut

Osasunaren eta gizarte zerbitzuen eremuen arteko **koordinazio funtzionala** gauzatzen duten **koordinazio figurei** dagokienez, hauexek nabarmentzen dira:

1. **Koordinazio Soziosanitario Autonomikoa** eta Batzorde Tekniko Iraunkorra, plangintzaren eta antolamenduaren kudeaketaren eremuan kokatzen dena. Koordinazio Soziosanitario Autonomikoa Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren (GZES) eta Osasun Sistemaren ordezkariak bere gain hartzen duen egitura funtzionala da, Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseilua ASEKek hiru kudeaketa mailetan (**plangintza eta antolamendua**, antolaketa eta laguntza) ezarritako jarduteko lehentasunak hedatzearen ondoriozko konpromisoak garatzeko, nahiz eta horietako lehenengoan kokatzen den.

Figura horrek **koordinazio soziosanitarioko eginkizunak beteko ditu maila autonomikoan**, eta ASEKek eskuordetzen duen ordezkari instituzionala beteko du. Osasun Sistemari, Osasun Saileko Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritza bere gain hartzen duenari egokituko zaio haren titulartasuna. GZESn, gizarte politiken arloan eskumena duen sailburuak izendatzen duena izango da titularra.

**Batzorde Tekniko Iraunkorra** aholkularitzako organo bat da, Koordinazio Soziosanitario Autonomikoaren funtzioak betetzen laguntzen duena.







2. **Lurralde Koordinazio Soziosanitarioa** plangintzaren, antolamenduaren eta antolaketaren kudeaketaren mailan kokatzen da.

Lurralde Koordinazio Soziosanitarioa egitura funtzional bat da, eta Gizarte eta Osasun Sistemak eta Osasun Sistemak ordezkaritza dute plangintzaren eta antolamenduaren, antolaketaren eta laguntzaren kudeaketa mailetan, nahiz eta **antolaketaren kudeaketa mailan** kokatu. Lurralde Koordinazio Soziosanitarioa **erreferentziatzeko figura da koordinazio funtzional soziosanitarioaren eremuan**, bere lurralde historikoaren barruan eta bere eskumenaren eremu zehatzean (osasuna edo gizartea).

Eginkizun horiek betetzeko ez da beharrezkoa izango egiturazko figura berriak sortzea. Osasun Sistemak, Osasun Saileko Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritzak izendatuko du haren titulartasuna lurralde historiko bakoitzean. GZESn, dagokion foru aldundiak izendatuko du titularra.

3. **Erreferente soziosanitarioak** antolamendu kudeaketaren eta kudeaketa asistentzialaren eremuetan dauden koordinazioko figurak dira. Erreferente Soziosanitarioak erreferentziatzeko figurak dira Gizarte eta Osasun Sistema eta Sistema Sanitario bakoitzaren **asistentzia eta antolaketa kudeaketako** mailen arteko elkarrizketako funtzioak garatzean, kasu bakoitzaren arretaren ondoriozko koordinazio soziosanitarioko premiei dagokienez, baita proiektu eta estrategia soziosanitarioak beren erakundean edo entitatean hedatzeari dagokienez ere.

Koordinatzaileak	Kudeaketa mailak		
	Plangintza eta antolamendua kudeatzea	Antolamenduaren kudeaketa	Asistentziaren kudeaketa
Koordinazio soziosanitario autonomikoa			
Lurralde Koordinazio Soziosanitarioa			
Erreferente soziosanitarioak			

Iturria: Euskadiko Gobernantza Soziosanitarioaren Eredua. Geuk egina, EASSE 2021-2024an oinarrituta

### 2.2.2. Irispidea

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko **12/2008 Legeak**, arreta soziosanitarioaren izaeraz gain, eremu soziosanitarioan **lankidetzan aritzeko eta koordinatzeko** bideak ezaritzeko oinarriak ezartzen ditu, koordinazio-eredu batekin bat etorritik. Eredu horretan, uztartu egin behar dira Eusko Jaurlaritzak Gizarte Zerbitzuen eta osasunaren arloan dituen politikak, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiek Gizarte Segurantzaren eta Euskadiko udalen arloan dituztenak.

Lege honek **istema eta politika publiko desberdinen** arteko **lankidetzaren eta koordinazioerako espazioak** eratzearen aldeko apustua egiten du, bateratze-eremuetan dauden behar soziosanitarioko egoerei erantzun ahal izateko. Gainera, eremu soziosanitarioko lankidetzari eta koordinazioari buruzko alderdiak zehazten ditu, eta **hiru mailaren** arabera egituratu behar da:





- **EAEn**, GZESen eta Osasun Sistemaren arteko koordinazioa eta lankidetzak EASEn esku egongo da, eta koordinazio soziosanitarioaren arloko erabaki politiko, arauemaile, ekonomiko, antolamenduzko eta asistentzialen orientazioa eta jarraipena egitea izango du helburu.
- **Foru eta udal mailan**, koordinazio-bideak egongo dira, hala nola lurralde-kontseiluak, batzordeak eta izaera mistoko beste organo batzuk, koordinazio soziosanitarioa sustatzera eta erraztera bideratuak lehen eta bigarren mailako arretan, baita diziplinarteko lanaren esparruan eta erabiltzaileekin esku hartzeko ibilbideen diseinuan ere.

Araudi horren espirituarekin bat etorritik, Bizkaiko POSS 2023-2026ren irispidea planteatzen da.

**Irispide geografikoari** dagokionez, planak, lan-esparru autonomikoarekin lerrotuta badago ere, **Bizkaian** garatu beharreko ekintzak zehazten ditu. Hala, lurraldeko zerbitzu eta baliabide soziosanitarioak kontuan hartzen ditu, eta lurraldean ikusitako behar espezifikoaren arabera lehentasunak ezartzen ditu.

**Erakunde mailan**, Bizkaiko POSSek eragile serioak hartzen ditu kontuan, **lurraldekoak zein autonomikoak**, baita gizartearen arlokoak zein osasunaren arlokoak ere, maila desberdinen arteko sinergiak eta interakzioak kontuan hartzen baitira.

Erakunde hauek hartu dute parte:

- Bizkaiko Foru Aldundia. Gizarte Ekintza Saila
- Bizkaiko Foru Aldundia. Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila
- Osasun Saila Eusko Jaurlaritzan
- Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritzan
- Hezkuntza Saila. Eusko Jaurlaritzan
- Osakidetza
- EUDEL

**Xedeko biztanleriari** dagokionez, eta betiere edozein pertsonari bere bizitzako uneren batean arreta soziosanitarioa eman dakiokela kontuan hartuta, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 46. artikuluan jasotako kolektiboetan zentratzen da batez ere, arreta soziosanitarioaren esparruan arreta jasotzeko aukera berezia baitute: mendetasun-egoeran dauden adinekoak; ezintasunen bat dutenak; buruko gaixotasunak dituztenak eta, bereziki, buru-gaixotasun larriak eta kronikoak dituztenak eta droga-arazoak dituztenak; gaixotasun somatiko kronikoak eta/edo ezintasuna sortzen dutenak dituztenak; ospitaleko alta jaso izanagatik ere oraindik beren buruak zaintzeko nahikoa autonomiarik ez duten eriondoak; gaixotasun terminalak dituztenak; eta gizartetik bazterturik geratzeko arriskua duten beste talde batzuk, eta, bereziki, arriskuan edo babesik gabe dauden edo jokabide-arazoak dituzten adingabeak, genero-indarkeria jasaten duten emakumeak, edo osasun-arloko eta gizarte-arloko laguntza behar duten immigranteak.

Azkenik, eta Planaren **egiturazko irispideari** dagokionez, Bizkaian eskuragarri dauden edo aurreikusten diren zerbitzu eta prestazioekin bat datorrela ezartzen da.





### 3. BIZKAIKO PLAN OPERATIBO SOZIOSANITARIOA (POSS) 2023-2026

#### 3.1. Akordio instituzionala

Bizkaiko Lurralde Historikoko POSS 2023-2026 **funtszko baliabidea da koordinazio soziosanitarioa kudeatzeko**, konpromiso eta erreferentziazko dokumentua baita, eta Bizkaiko arreta soziosanitarioan parte hartzen duten eragile eta erakundeen ibilbide-orria da.

#### 3.2. Lortu nahi diren helburuak

##### 3.2.1 Helburu orokorra

Bizkaiko POSS 2023 - 2026k helburu orokor hartzen du Bizkaiko Lurralde Historikoan gizarte-eta osasun-zerbitzuen sistemen koordinazioa sustatzea, hain zuzen integrazio funtzionala lortzeko, arreta soziosanitario egokia emateko ardatz hartuta, pertsonarengan eta haren ongizatean zentratuta, eta zainketen jarraitutasunerako bermea den aldetik, asistentzia estalduraren gainjartzearen, hutsaren edo defiziten ondoriozko desorekarik ez izateko.

##### 3.2. 2 Helburu espezifikok

**Bizkaiko POSS 2023-2026k helburu orokorrarekin lerrokatutako 19 proiektu** aurkezten ditu, eta horietako bakoitzerako **helburu espezifikok eta programatutako ekintzak** zehazten ditu. Helburu espezifiko horiek **EASS 2021-2024ren** 5 jarduketa-arloei dagozkie, eta taula honetan zehazten dira:

ARLOA	HELBURU ESPEZIFIKOA	PROIEKTU OPERATIBOA
Gobernantza	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gobernantza soziosanitarioan jasotzen diren organoak eta figurak formalizatzea eta egokitzea gobernantza hori arautzen duen 150/2022 Dekretuaren araudi berrira.</li> </ul>	Gobernantza soziosanitarioa Operatibizazioa Bizkaian.
	<ul style="list-style-type: none"> <li>Bizkaian arreta soziosanitarioan erantzukizuna duten erakundeen artean partekatutako finantza-lankidetzarako esparru bateratua sortzea.</li> </ul>	Lurraldeko erantzun soziosanitarioa hobetzeko hitzarmen soziosanitarioak
Elkarreragingarritasun soziosanitarioa	<ul style="list-style-type: none"> <li>Lehen mailako udal arretako edo arreta mankomunatu (forala) Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen eta osasun sistema publikoko lehen mailako arretaren eta/edo osasun mentaleko sarearen arteko interkontsulta/deribazio elektronikoa ahalbidetzea</li> </ul>	Interkontsulta elektronikoa soziosanitarioa lehen mailako arreta soziosanitarioan
	<ul style="list-style-type: none"> <li>Informazioa trukatzeko beharrezkoak diren elkarreragingarritasun bideak ezartzea, etxean arreta integralagoa emateko.</li> </ul>	Elkarreragingarritasuna, laguntza behar duten pertsonen eta haien familia zaintzaileei etxean ematen zaaien arreta hobetzeko
	<ul style="list-style-type: none"> <li>Osasunari, hezkuntzari eta gizarte-zerbitzuei buruzko informazio-sistemen jarduketak koordinatzea, haur bakoitzak eta haren familiak arreta pertsonalizatuko plan (APP) partekatu bat dutela bermatzeko. Plan horrek hiru eremuetako esku-hartzeak bilduko ditu: gizarte-zerbitzuak, osasuna eta hezkuntza.</li> </ul>	Elkarreragingarritasuna Arreta Goiztiarreko Arreta Pertsonalizatuko Planean aurrera egiteko
	<ul style="list-style-type: none"> <li>Bizkaian zabaltzea gizarte-zerbitzuen sistemaren eta osasun-sistemaren artean adostutako osasun-txostenaren eredu elkarreragingarria.</li> </ul>	Mendekotasuna eta desgaitasuna baloratzeko osasun-txostenaren elkarreragingarritasuna





ARLOA	HELBURU ESPEZIFIKOA	PROIEKTU OPERATIBOA
Prebentzio soziosanitarioa	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gizarteratze-sareko programen eta Bizkaiko osasun mentaleko sarearen arteko koordinazio-kanalak ezartzea, arreta malguagoa eta hurbilagoa bermatzeko.</li> </ul>	Beharriaren diagnostikoa eta lan-proposamenak gizarteratze-sareko programak Bizkaiko osasun mentaleko sarearekin koordinatzeko (BOMS)
	<ul style="list-style-type: none"> <li>Osasun sistemaren eta gizarte-zerbitzuen artean partekatutako ibilbideak bideratzeko/kudeatzeko protokoloak ezartzea, indarkeria matxistaren biktimak berriz ez biktimizatzeko, eta dituzten behar soziosanitarioetara hobeto egokitzen diren laguntzak ematea, bi sistemetako biktimei arreta emateko profesionalen arteko elkarretingarritasun digitaleko mekanismoak garatuta.</li> </ul>	Indarkeria matxistaren biktimentzako arreta integrala garatzea
	<ul style="list-style-type: none"> <li>Adinekoen aurkako tratu txarrak prebenitzeko eta detektatzeko tresnaren erabilera bultzatzea, erakundeen arteko koordinaziotik abiatuta, eta datuen gordailu komun baterantz aurrera egitea.</li> <li>Desinstituzionalizazio prozesu seguruei heltzeko modu berriak ahalbidetuko dituzten oinarriak sustatzea, laguntza soziosanitario nahikoak dituen arretarako ibilbide baten bitartez, intentsitate handiko arreta-baliabideen irteera-ibilbideetan (ospitaleratze luzea, egoitza-ospitaleratzea...) dauden zailtasunak eta oztopoak identifikatuta, baita bideratzaileak eta jardunbide egokiak ere.</li> </ul>	Adinekoen tratu txarren detekzioaren ezarpena, koordinazioa eta jarraipena bultzatzea  Desinstituzionalizazioari laguntzeko prozesuak garatzea
Arreta soziosanitarioa	<ul style="list-style-type: none"> <li>Koordinazio soziosanitarioaren garapenean aurrera egitea toki eta eskualde mailan, bai ASEKen bai Bizkaiko POSSen onartutako proiektuak sustatuta.</li> </ul>	Tokiko eta eskualdeko proiektu soziosanitarioen garapena bultzatzea
	<ul style="list-style-type: none"> <li>Krisialdian haur eta gazteen osasun mentalean espezializatutako egoitza-harrera behar duten adingabeei arreta ematea, BFAk hartutako babes neurriarekin, egonkortzeko, arreta integrala emateko eta, hala badagokio, jatorrizko familia edo zentroetara egonkortasunean itzultzeko.</li> </ul>	Babes neurriak dituzten nerabeei haur eta gazteen osasun mentaleko arreta integrala emateko zentroa
	<ul style="list-style-type: none"> <li>Erreferentziako eskualde-zentroak garatzea eta hedatzea, egoitza-arretari laguntzeko baliabide soziosanitarioa den aldetik, pertsonengan eta haien zainketei buruzko erabakiak hartzeko eskubideetan oinarritutako ereduak sustatuta, eta laguntzako zirkuituak eta deribazioak argituta.</li> </ul>	Erreferentziako Eskualde Zentroak (EEZ) garatzea, egoitza-zentroetako arreta integralari laguntzeko
	<ul style="list-style-type: none"> <li>Arreta soziosanitarioko ibilbideen pertsonalizazioan aurrera egitea (saikapena, urgentzia eta denboren kudeaketa), behar den arretaren intentsitate mailen arabera, altarako irteera-ibilbideak hobetuta eta ibilbide pertsonalizatuak sortuta (etxekoa, komunitarioa, laguntza pertsonalizatuak), EUSez bestelakoak.</li> </ul>	Arreta soziosanitarioan plaza-profilak eta ibilbide pertsonalizatuak dibertsifikatzea
	<ul style="list-style-type: none"> <li>Behar soziosanitario globalen detekzioan aurrera egitea, balorazio soziosanitarioa eta baterako jarduketa-plana planifikatuz eta adostuz gizarte segurantzako eta osasuneko lehen mailako arretaren artean, BFAren kasuaren koordinazioan eta etxean irauteko laguntza-etxeTIC zerbitzua ematean.</li> </ul>	Kasuaren koordinazioa garatzea arreta soziosanitario koordinatua hobetzeko
	<ul style="list-style-type: none"> <li>Etxea egokitzeko prozesua eta ospitaleko unitateetan (Gurutzetako Ospitaleko bizkarrezur-muineko lesioaren unitatea, AEA unitateak...) ingresatutako pazienteentzat beharrezkoak diren laguntza-produktuen erosketari arintzea, ospitaleko alta jaso ondoren etxera itzultzea ez atzeratzeko.</li> </ul>	Ospitaleratze sanitarioaren edo soziosanitarioaren ondoren etxera itzultzeko laguntzak egokitzeko protokoloa Erantzun integratua detektatzea eta ematea
I+G+B soziosanitarioa	<ul style="list-style-type: none"> <li>Bizi-itxaropen laburreko egoeren aurrean erantzun integratua detektatzea eta ematea, gizarte eta osasun zerbitzuetatik laguntzak koordinatuta, egoera horretan dagoen pertsonak bere bizi-proiektuarekin jarraitu ahal izan dezan, behar dituen laguntzekin, ahal duen neurrian, bizitzaren amaierako etapan aukeratzeko duen etxean egoteko.</li> </ul>	Koordinazio soziosanitarioetik laguntzak ematea bizitzaren amaieran dauden pertsonen arreta integrala emateko etxean
	<ul style="list-style-type: none"> <li>Artatutako pertsonen bizi-kalitatean eta parte hartzen duten eragile guztien parte-hartzean oinarritutako ebaluazio-metodologia hedatzea. Pertsonengan lortutako emaitzak aztertuta, aginte-taula soziosanitarioa, eta balio-adierazleak garatuta.</li> </ul>	Proiektu soziosanitarioen ebaluazio integraleko prozesuak garatzea
	<ul style="list-style-type: none"> <li>Behar soziosanitarioak dituzten pertsonen zuzendutako proiektu berritzaileetan inplikaturako eragileen arteko lotura bultzatzea.</li> </ul>	Mikroesperientzia berritzaileen bankua





## 4. BIZKAIKO POSS 2023-2026REN PROIEKTUAK

### 4.1. Ikuspegi orokorra: proiektuen zerrenda:

Lehentasun estrategikoa	IG	Proiektua
<b>Gobernantza</b>	G1	Gobernantza soziosanitaria Operatibizazioa Bizkaian.
	G2	Lurraldeko erantzun soziosanitaria hobetzeko hitzarmen soziosanitarioak
<b>Elkarreragingarritasun soziosanitaria</b>	I1	Lehen mailako arreta soziosanitaria hobetzeko interkontsulta elektronikoa
	I2	Elkarreragingarritasuna, laguntza behar duten pertsoneri eta haien familia zaintzaileei etxean ematen zaien arreta hobetzeko
	I3	Elkarreragingarritasuna Arreta Goiztiarreko Arreta Pertsonalizatuko Planean aurrera egiteko
	I4	Mendekotasuna eta desgaitasuna baloratzeko osasun-txostenaren elkarreragingarritasuna
<b>Prebentzio soziosanitaria</b>	P1	Beharrezko diagnostikoa eta lan-proposamenak gizarteratze-sareko programak Bizkaiko osasun mentaleko sarearekin koordinatzeko
	P2	Indarkeria matxistaren biktimetako arreta integrala garatzea
	P3	Adinekoen tratatu txarren detekzioaren ezarpena, koordinazioa eta jarraipena bultzatzea
	P4	Desinstituzionalizazioari laguntzeko prozesuak garatzea
<b>Arreta soziosanitaria</b>	A1	Tokiko eta eskualdeko proiektu soziosanitarioen garapena bultzatzea
	A2	Babes neurriak dituzten nerabeei haur eta gazteen osasun mentaleko arreta integrala emateko zentroa
	A3	Erreferentziako Eskualde Zentroak (EEZ) garatzea, egoitza-zentroetako arreta integralari laguntzeko
	A4	Arreta soziosanitarioan plaza-profilak eta ibilbide pertsonalizatuak dibertsifikatzea
	A5	Kasuaren koordinazioa garatzea arreta soziosanitario koordinatua hobetzeko
	A6	Ospitaleratu ondoren etxera itzultzeko laguntzak egokitzeko protokoloa
	A7	Koordinazio soziosanitariotik laguntzak ematea bizitzaren amaieran dauden pertsoneri arreta integrala emateko etxean
<b>I+G+b soziosanitaria</b>	D1	Proiektu soziosanitarioen ebaluazio integraleko prozesuak garatzea
	D2	Mikroesperientzia berritzaileen bilduma

### 4.2. Egungo POSS jasotzen duten proiektuen edukiaren xehetasuna:

**19 proiektuak** eta horiei dagozkien ekintzak azalduko dira. Proiektu bakoitzak taula honetan deskribatutako informazioa du:

**Titulua** | XXXXX

**Lehentasun estrategikoa** | XXXXX

<b>Arduraduna</b>	XXXXX	<b>Hasierako data gutxi gorabehera</b>	XXXXX	<b>Amaierako data gutxi gorabehera</b>	XXXXX
<b>Azalpena</b>	XXXXX	<b>Lortu nahi diren helburuak.</b>	1. XXXXX	<b>Parte hartzen duten eragileak</b>	XXXXX
<b>Adierazleak</b>		<b>Espero diren emaitzak</b>	1. XXXXXX	<b>Ekintzak</b>	1. XXXXX
		Jarduera: XX	Emaitza: XX		





## GOBERNANTZA

**Titulua | G1** - Gobernantza soziosanitaria. Operatibizazioa Bizkaian

**Lehentasun estrategikoa |** Gobernantza

### Arduraduna

Lourdes Zurbanobeaskoetxea  
Ramón Herrería

### Hasierako data gutxi gorabehera

2023ko apirila

### Amaierako data gutxi gorabehera

2023ko abendua

### Azalpena

Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretua profesionalen, erakundeen eta Gizarte eta Osasun Zerbitzuen eta Osasunaren arteko harremanak artikulatzeko lanak maila juridikoaren amaiera da. 2018an hasi ziren lan horiek, Gobernantza Soziosanitarioaren Eredua presatzearekin batera.

Gobernantza Soziosanitarioko eredu horrek arreta soziosanitaria koordinatzeko dauden organoen eta figuren arteko harremanak antolatzen ditu estrategia, antolamendu eta laguntza mailan, eta organoen osaera definitzen du.

Euskadiko gobernantza soziosanitarioari buruzko abenduaren 7ko 150/2022 Dekretuak indargabetu egin du Bizkaiko Lurralde Historikoko Lurralde Batzorde Soziosanitarioa, eta, ordenamendu juridikoa betez, organoak eta figurak eratu eta erregularizatu behar dira.

### Lortu nahi diren helburuak.

1. Gobernantza soziosanitarioan jasotzen diren organo eta figurak formalizatzea eta gobernantza hori arautzen duen 150/2022 Dekretua araudi berrira egokitzea

### Espero diren emaitzak

1. Bizkaiko Lurralde Kontseilua sortzea.
2. Bizkaiko Lurralde Koordinazio Soziosanitarioko Batzordea sortzea.
3. Bizkaiko lurraldeko batzorde eta azpibatzerde soziosanitarioak Euskadiko gobernantza soziosanitarioari buruzko 150/2022 Dekretuaren erregulazio berrira egokitzea.
4. Bizkaiko eskualdeko batzorde soziosanitarioak Euskadiko gobernantza soziosanitarioari buruzko 150/2022 Dekretuaren erregulazio berrira egokitzea.

### Parte hartzen duten eragileak

Bizkaiko Foru Aldundia..  
Osasun Saila. Eusko Jaurlaritz (EJ).  
Osakidetza.  
EUDEL.  
Bizkaiko lurraldeko koordinazio soziosanitaria

### Ekintzak

1. Bizkaiko Lurralde Kontseilu Soziosanitarioa eratzea.
2. Bizkaiko Lurralde Batzorde Soziosanitarioa eratzea.
3. Bizkaiko azpibatzerde soziosanitario espezifikokoak eratzea.
4. Bizkaiko eskualdeko azpibatzerde soziosanitarioak eratzea

### Adierazleak

#### Jardueraren adierazlea:

- Gobernantza soziosanitarioaren operatibizazioan inplikaturako eragile/erakunde soziosanitarioen kopurua Bizkaian.
- Gobernantza soziosanitarioko Bizkaiko lurralde- eta eskualde-batzordearen bileren kopurua.

#### Emaitzaren adierazlea:

- Bizkaiko Lurralde Kontseilua sortzea.
- Bizkaiko Lurralde Batzorde Soziosanitarioa eratzea.
- Bizkaiko eskualdeko azpibatzerdeak eta azpibatzerde soziosanitario espezifikokoak eratzea.





**Titulua | G2** - Lurraldeko erantzun soziosanitarioa hobetzeko hitzarmen soziosanitarioak

**Lehentasun estrategikoa |** Gobernantza

<p><b>Arduraduna</b></p> <p>José Antonio Barañano          Jose Antonio De la Rica</p>	<p><b>Hasierako data gutxi gorabehera</b></p> <p>2023ko uztaila</p>	<p><b>Amaierako data gutxi gorabehera</b></p> <p>2023ko abendua</p>
<p><b>Azalpena</b></p> <p>Arreta soziosanitarioko eredu koordinatu bat egituratzeko, finantzaketako elementu partekatuak eta erakundeen arteko lankidetzak behar dira. Elementu horiek Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legean jasota daude, eta EAEko administrazio publikoen arteko lankidetzak aurreikusten du.</p> <p>Ilido horretan, Bizkaian honako hauek ditugu:..</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Lankidetzak-hitzarmena, 2019ko abenduaren 17koa, nahasmendu mental larria duten pertsonen arteko soziosanitarioa emateko, 2019ko urtarrilaren 1etik 2022ko abenduaren 31ra arteko indarraldia duena, eta 2023/12/31ra arte luzatua.</li> <li>• Arreta soziosanitariorako BFAren eta EAEko Administrazio Orokorraren arteko lankidetzak-hitzarmena, EUSEkin eta adinekoren eta desgaitasuna duten pertsonen egoitzekin lankidetzan aritzea xede duena (33/2023 ebazpena, otsailaren 27koa).</li> </ul>	<p><b>Lortu nahi diren helburuak.</b></p> <p>1. Erakundeen arteko lankidetzak, lurraldeen behar soziosanitarioei (gaixotasun mentala, adinekoren egoitzetako osasun-prestazioa, desgaitasuna eta unitate soziosanitarioak) erantzun bateratua emateko. Finantza-lankidetzarako hitzarmena BFArekin, premia soziosanitarioak finantzatzeko.</p> <p><b>Espero diren emaitzak</b></p> <p>1. Baterako finantzaketa esparru bat ezartzea, POSSen esparruan identifikatutako arreta soziosanitarioaren finantzaketaren gaineko beharrei erantzuteko.</p>	<p><b>Parte hartzen duten eragileak</b></p> <p>Bizkaiko Foru Aldundia..          Osasun Saila. EJ</p> <p><b>Ekintzak</b></p> <p>1. Indarrean dauden hitzarmenak berrikustea (osasun mentala eta EUSEgoitzak).</p> <p>2. Hitzarmen bateratu bakarria baloratzea eta, hala badagokio, lantzea eta onartzea.</p>

<p><b>Adierazleak</b></p>	<p><b>Jardueraren adierazlea:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Parte hartzen dute erakunde soziosanitarioen kopurua.</li> </ul> <p><b>Emaitzaren adierazlea:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Gobernantza soziosanitarioari buruzko 150/2022 Dekretuaren funtzionamendurako eta abian jartzeko finantzaketa-esparrua ezartzea.</li> </ul>
---------------------------	---





## ELKARRERAGINGARRITASUN SOZIOSANITARIOA

**Titulua | I1** - Interkontsulta elektronikoa lehen mailako arreta soziosanitarioan

**Lehentasun estrategikoa |** Elkarreragingarritasun soziosanitarioa

<p><b>Arduraduna</b></p> <p>Lourdes Zurbanobeaskoetxea Ramón Herrería</p>	<p><b>Hasierako data gutxi gorabehera</b></p> <p>2023ko urtarrila</p>	<p><b>Amaierako data gutxi gorabehera</b></p> <p>2026ko abendua</p>
<p><b>Azalpena</b></p> <p>Bermeoko eta Busturialdeko Mankomunitateko gizarte-zerbitzuen eta Gernikako, Gernikaldeko eta Bermeoko LGUren arteko interkontsulta soziosanitarioa 2021ean hasi zen. 2022an, GSZren eta Gernikako KIUaren arteko G.S.Eren erabilera-kasuaren eredu funtzionala garatu zen.</p> <p>Egungo fasean, proiektuak beharrezko garapenak egin nahi ditu Gizarte Zerbitzuen eta Gernikako, KIUren artean informazioa elektronikoki trukatzeko aukeretan (elkarreragingarritasuna) aurrera egiteko (Gernika, Gernikaldea, Bermeo eta Lekeitio barne).</p> <p>Lehen mailako arreta soziosanitarioa Lehen Mailako Arretako Erizaintzako medikuak eta profesionalak osatutako bikote batek betetzen du, udal oinarriko edo foru oinarriko gizarte-langilearekin edo oinarriko Gizarte Zerbitzuetako beste profesional batzuekin batera.</p> <p>Erabilera kasuaren metodologia erabiliko da; praktikan, tresna bat da sistema baten portaera zehazteko eta EAE osora igotzeko.</p>	<p><b>Lortu nahi diren helburuak.</b></p> <p>Udal eta/edo foru OGZen eta Lehen Mailako Arretako osasun-sistema publikoaren arteko interkontsulta/deribazio elektronikoa egitea erraztea.</p> <p><b>Espero diren emaitzak</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>Bermeoko gizarta-zerbitzuen eta Busturialdeko Mankomunitatearen eta Gernika, Gernikaldea eta Bermeoko LGUren eta Gernikako KIUren arteko interkontsultaren pilotaje-plan bat garatzea, balioa emango duena eta sistemaren gainerakora eskalatzeko modukoa izango dena.</li> <li>Lehen mailako arreta soziosanitarioan interkontsulta gizarte-zerbitzuen eta osasun-sistemaren artean hedatzeko plana.</li> </ol>	<p><b>Parte hartzen duten eragileak</b></p> <p>Osakidetza Barrualde-Galdakaoko ESI, Gernikako Ospitalea, Gernikaldeko LGU, Informatikako Zuzendariorde, Osasun Laguntzako Zuzendaritza-Lehen Mailako Arretako Koordinazioa.</p> <p>Busturialdeko gizarte-zerbitzuen mankomunitatea, Bermeoko gizarte-zerbitzuak.</p> <p>Osasun Saila Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritza.</p> <p>Gizarte Ekintza Saila. BFA.</p> <p>Lurralde Koordinazio Soziosanitarioa</p> <p><b>Ekintzak</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>Zerbitzu juridikoei interkontsulta proiektuaren bideragarritasunari buruzko txostena eskatzea..</li> <li>Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza eta Osakidetza Informatika Zuzendariorde deitza, Gizarte eta Osabideko softwarearen analisia, diseinua eta garapena koordinatzeko bilera teknikoekin jarraitzeko..</li> <li>Talde eragilea deitza, pilotaje plana aurkezteko eta onartzeko..</li> <li>Pilotaje planaren ebaluazioa egitea.</li> <li>Hedapen plana lantzea eta aurkezte.</li> </ol>

### Adierazleak

#### Jardueraren adierazlea:

- Hasitako pilotaje planaren aurrerapen jarraipena egiteko talde eragilearekin egindako bileren kopurua.
- Proiektuaren hedapenean hasitako pilotu berrien kopurua.

#### Emaitzaren adierazlea:

- Proiektu pilotuaren ebaluazioa.
- Gizarte-zerbitzuen eta osasunaren arteko interkontsulta elektronikoa hedatzeko plana egitea.







**Titulua | I2 -** Elkarreragingarritasuna laguntza-premia duten pertsonen eta haien familia zaintzaileei etxean ematen zaien arreta hobetzeko

**Lehentasun estrategikoa | II. Esku-hartze soziosanitarioa**

<p><b>Arduraduna</b></p> <p>Izko Cardenal          Jose Antonio de la Rica</p>	<p><b>Hasierako data gutxi gorabehera</b></p> <p>2023ko apirila</p>	<p><b>Amaierako data gutxi gorabehera</b></p> <p>2026 ko abendua</p>
